

## **GIZON HERRENAREN OLERKIA**

Maite Larrarte Maioz

*Bidegoian*

Bazen neska bat  
izena zuena Miren,  
berarekin batera  
lagun bat zuen  
txikiagoa zena  
izenarekin Maren.

Biak zubipean  
Bakar-bakarrik zeuden.

Egun batean  
gizon bat agertu zen.  
Neskengana hurbildu eta,  
elkarri begira geratu ziren.  
Neskek beldurturik,  
gizonari esan zioten:  
Nor zara zu?  
Ni naiz herren,  
laguntzea nahi?  
Bai, arren.

Biak zubipean  
Bakar-bakarrik zeuden.

Neskek atseginez  
lagundu zioten.  
Etxe eder bat  
ezkutuan zuen  
gizon herren hura  
dotorea eta aberatsa baitzen  
eskuzabala zenez,  
bere etxean hartu zituen,

Handik aurrera  
bizi izan ziren berarekin.  
Hain goxo eta pozik  
ezen ipuina zirudien.